

74ER


BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

140n. Zenbakia Jorria (Aprilla)

1990



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



GABIREL MANTEROLA, ABADE IDAZLEA
(1890-III-17'an jaioa)

ARAZOAK

DROGATUAK

Bide errezetara jarriak gaude... Nekearen etsai... Norbere burua ukatzea...? Alienazio bat... Alkoola, lizunkeria, droga... Irurak eskillera baten maillak...

—Droga itz ori ez al da modako gaia...? Ez ote da itz-utsa...? Mitoa...? Topikoa...?

—Droga-arazo ori askok uste daben baiño gauza larriagoa da. Marihuanakin ematen zaio asiera. Leenengo zigarrotxo bat. Merke. Oso merke. Erregalo ere bai, askotan. Baiña, erregalo merke orrek kakoa dakar ondoren...

—Zer kako...?

—Zera... proba ori bertan geldituko balitz, gaitz-erdi; marihuanak, ordea, eroina dakar eskutik...

—Ta orren txarra al da eroina...?

—Iru artu-aldi naikoak omen dira betirako oitura nekegarri orren menpean gelditzeko... Bein artara oitu ezkeru, galdua zaude betirako... Ondamendi onetan bere burua galdutako gazte baten itzak intzun ditzagun.

* * *

Juan dan Azaroan gertatua. Bere izena: Percy Patrik Pilon. Amazortzi urte bete-berriak. Tiroz bere burua garbituaurretik ona zer idatzi zuen:

"...Bateren batek drogarik eskeiñiko ba'lizu, erantzun beriala ezetz, nik jokatu nuen baiño gizonkiago jokatu dezazun... Nere ondamendia zuentzako salba-bide izan dedilla. Zuen artekorik ez dezala iñortxok ere nik ezagutu ta eraman dedan inpernurik ez ezagutu ez eraman..."

"Izango dituzute zuek ere, nik bezela, droga eskeiñiko dizuten «lagun maiteak»... Ez fia...! Gaur erregalo ba'da ere, laister asiko zaizute kobraketan. Merke oraindik ere. Geroxeago droga fuertegoa eskeiñiko dizute. Merke ura ere..."

"Baiña, droga oien menpean zuen buruak ikusiko dituztenean, orduan izango da zuen errukarri ... ! Marihuana eskeintzen dizun lagunak berberak eskeiñiko dizu eroina ere... Zertarako...? Zuri lapurretan egiteko: diruakin batera kenduko dizute bizia... Orixe nai dute droga eskeintzen dizuten orok. Ta au gogoan ondo artu...!"

* * *

Aurrerago onela dio:

"...droga oiek lausoa sortu didate nere gogapen maitekorren artean; nere ausardi ta gizatasuna erdibitu didate; droga aurretik ain maite nuen nere etxe-barne bizitza ondatu didate..."

"Drogak apurño batean zoriona ba dakarte ere, sekula akabatzen ez diran urte luze samiñak dituzte beren ondorenak..."

Azaroaren zortzian gertatu zan eriotza Joliet-en (Illinois: U.S.A.).

Bein drogara jarri ezkeru, drogadunen eskuetan zaude: zu larrutzea dute oiek asmo.

Ona zertzuk dakarzkina drogak berarekin batera: lan eta estudiorako gogoak kendu, edozertarako moteldu, alperkerira jo, gau ta egun droga billa... pakegabeko inpernurik nazkagarrienean gaztaroa alperrik erretzen...

Patarrari ta tabakoari ezezkoa ematen ikasi duten gazteak arrisku gutxiago omen dute droga-sareetan erortzeko... Etxeko giro ona galdu duten gazteak, berriz, arriskurik geien... Negozio itzala omen da drogaren merkatua. Dirua erruz. Ta, diruagaitik...?! Iru urte-barruan, gazte drogari emanak Alemanian amar aldiz geiago omen dira... Alemania ur daukagu: etxean bertan. Zur, ba.

ANES

LAGUNTZAILLE ELEIZAN ETA ERRIAN (MANTEROLA'TAR GABIREL)

(MEZAKO ITZALDIA)

BERBEAREN OSPAKIZUNA

Une aundietan Kristiñauok eleizan batzen garanean, Jaungoikoaren berbea entzutea izaten da lenengoetariko eginkizuna.

Orrelan izan zan 1990'ko epaillaren 17'an, Gabirel Manterola jaio zanetik eungarren urtean Zea-nuri'n eta Euskerazaintza ta Euskerazaleak eratzaille zirala egin genduan Eukaristian.

Irakurgai bi aukeratu genduzan. Lenengoa Agerpena deritxon liburutik, beste munduan Jaungoikoaren aurrean erri, enda eta izkuntza guztieta-koak aurkitzen dirala diñoskun zatia eta bigarrena, Jesus'ek, azkenengo aparian apostoluen oiñak garbitu ondoren, bera serbitzera etorri zala eta alkarren zerbitzaille edo laguntzaille izan bear dogula eskatzen dauskun zatia.

Biblia'ren zati bi orreik azaltzeko izan zan itzaldia, azaltzeko eta egiten genduan ospakizunera ekarteko. Ez zan mezearen elburua Gabirel goratzea, beiñago beragaz gogoz alkartuta bere alde eskatzea. Dana dala, Bibliaren eta berbaldiaren aria jarraitu ezker, errez ulertzen da, Gabirel eleizearen eta erriaren laguntzaille izan zala eta bere antzekoak izan bear dogula orretan.

ZERTAN LAGUNTZAILLE?

Lenengo ta bein, Jesus'en Barri Ona, berbaz eta egitez, euskal jakintzaren mundura sartzean. Gero euskaldun kristiñauak euren eleiz-batzarretan egokiro janaritzean. Gaiñera errian bear izan berezi batzuk sortzen diranean, laguntza bereziak emon bear izaten dira eta orretarako norberararen burua eskintzea gauza txalogarria da. (Orrelan egin eban gure Gabirel'ek Inglaterra'ra erbesteratuta joan ziran umeai laguntzeko gertu agertu zanean).

Eleiz-barruko giroan fededunai begiratzea eta



Omenaldiko mezea: Aurreko bateo-arri orrelan izan zan bateatua, orain 100 urte D. Gabirel.

eurak Jesus ezagutzen eta maitatzen aurrera egin dagien alegintzea, artzain onaren giroan onartzeko zeregiña da, esaterako umeen katekesian lan egiten danean. Egia esan, gaur ardura aundiaz artzen da nagusien katekesia eta guztiok daukagu orretan taldeetan alkartu eta Barri Ona sakontzeko eginbearra, baiña, aldi aldiko gauzak, Gabirel'ek katekesi-lana ugari egin eban. Ez bear ba'da gaurko aurrerapenakaz, bai orduan aurrerapen aundia ziran bideak artuta.

IDAZLE-LANA

Baiña, eleizgiroan naiz erri-giroan, bear-bearrekoa zan aldi aretan Gabirel'en lan berezia, liburuetan eta aldizkarietan idaztea.

Idazle ugaria izan genduan Gabirel, geienetan eleiz--giroko lanetan, baiña erri-girokoetan be bai. Geroko itzaldietan agertuko da lan aundi ta eder au.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

OMENALDIA

MANTEROLA'tar GABIREL'eri (Zeanuri'n, 1990-3-17)

GERTAKUNTZA

EUSKERAZAINTZA (Euskerearen Erri-Akademia)'k eta EUSKERAZALEAK Omenaldia gertatu dautsoe Manterola'tar Gabirel idazleari bere jaiotzatik eungarren urtea beteten dan egun beratan.

Gauza egokia zan omenaldi au gertatzea. Gabirel Euskaltzaindiko bazkide urgazlea izan zan, baiña beti agertzen eban Euskaltzaindiaren jokabide okerrak bere barruan sortzen eban miña eta ez eban utsik egiten Kardaberaz'tarren Batzarretara eta artu-emon biziak izaten ebazan Bilbo'ko Euskerazaleak Alkarteagaz, baita onen ekintzetan biotz zabalez eta gogo onez bere laguntza emon be. Ez eban bere bizitzan EUSKERAZAINTZA sortuta ikusi, baiña sortzeko bideetan ur-urrean ibilli bai.

* * *

EGITARAUA

Sasoiz eta ardura aundiz gertatu eben EUSKERAZAINTZA'k eta EUSKERAZALEAK omenaldi onetarako egitaraua eta Zeanuri'ko Udala, Bilbo'ko Aldundia eta Eusko Jaurlaritza be laguntzeko gertu agertu jakezan. Augustin Zubikarai izan zan gertakuntza onetan arduradun eta gogo-emoille.

Egitarauak lau ekiñaldi izan ebazan: Lenengo Zeanuri'ko eleizan, bigarrena Albako'ko eskoletan, irugarrena Arregia'ko plazan eta laugarren Zulaibar'eko Lan-Ikastegian.

Eta lau ekiñaldi onetan lan pozgarria eta ederra egin eben Zeanuri'ko Udalak ipiñi ebazan Dantza-Taldeak, Bertsolariak (Pujana'tar Basilio ta Ertxebarria'tar Faustino) ta erriko txistulariak.

* * *

ELEIZAN

Zeanuri'ko Eleiza aundi eta ederra beterik egoan goizeko amaiketarako eta ordu orretan agertu ziran amabi abade altarera. Angoitia neska organulariak asi eban aundikiro lenengo abestia alkartasun~Iren poza ager-

tuz. Idaz-lan au izenpetzen dauanak egin ebazan oarrak eta mezako berbaldia eta meza-emoilleen buru GabirePen lobeia dan Manterola'tar Ander izan zan. ZER onen beste orri baten eskintzen dogu berbaldiaren laburpena.

* * *

JAKINTZA-EKIÑALDIA

Erriko eskolak ederrak eta egokiak dira. Oraintsu apaindu, zabaldu eta edertuak. Gogoan daukagu eskolak batzeko jokabidea agertu zanean zelako alegiñak egin ziran erriko eskolak ez kentzeko. Eta lortu be egin zan. Izan be ume-bako erria erri ituna da.

Albakoan dagoz eskola eder orreik eta aurre-erdian idazki au dauke: Laterrri-Ikastolak. Idazki au Gabirel'eri eritxia eskatuta ipiñi zan demokrazi-aldia baiño lenago. Gaiñera len alde baten beste geigarri au eukan "Mutiltxoak" eta bestean "Neskatxoak". Eskolen barrizatzea egin zanean, itz bi onek kendu egin bear izan ziran, neska-mutillen eziketa batera egin dalako.

Lengo ikas-gela zarrak izan ziran lekuan areto ederra dauke eskola oneik eta antxe izan zan jakintza ekiñaldia.

Lenengo Sabin Intxaurrea alkate jaunak emon euskun ondo etorria eta labur egin eban ekiñaldiaren aurkezpena.

Gero Ander Manterola'k egin eban lenengo itzaldia, Gabirel'en bizitza osoa azalduz. Berbaldi oso egokia eta, batez be, benetan ikusgarriak argibidezko argazkiak. Argazki oneik Gabirel'en bizitza guztikoak ziran. Umetan asi eta zartzarora arte. Izlariak esan eban lez, beste berbaldietarako euskarri izan zan lenengo itzaldi au.

Gero Aita Santi Onaindia'k Zeanuri'n izan diran idazleen barria emon euskun, baita Gabirel'en idazlanena be, baiña amar minutu baiño ez eukazan ezkerro, ezin dana irakurri. ZER onetan agertzen da bere itzaldia.

Urrengo izlaria Eibar'en abade dan Zelaia'tar Pedro

izan zan. Onek bizkaiera eder eta garbian bizitasun aundiaz agertu eban Eibar'ek Gabirel'eri eutson zorra eta agertzen dautson maitasuna, baita berak uri aretan egin ebazan lanak eta izan eban giro gozoa.

Laugarren berbaldian Belaustegigoitia'tar Maitena'k Ume erbesteratuen arazoa agertu euskun eta arazo orren barruan Gabirel'ek egin eban lan garratza, samintasunezkoa, España'tarren aldeko giroan bizi zan erri arengandik artzen eben erantzun mingotsa, naizta alde egon ziranak be izan.

Maitena bera be erbesteko umeakaz Frantzia'n izana dogu. Egun beratan, itxas-ontzi baten izan ez arren, urten eben erbestera beronek eta Gabirel'egaz egon ziran umeak. Orregaitik, bizi-bizi agertu eban arazoa eta itzaldi au be ZER onetan agertzen dogu.

* * *

GABIREL'EN ETXE-AURREAN

Albako'ko eskoletatik Arregia'ko plazara joan giñan. Antxe aurkitzen da Gabirel bizi izan zan etxea, eta antxe bizi dira gaur be Delbin bere lobeia, azken-orduan bera zaintzeko ainbeste lan egin eben Miren lobeia ta Kontxi Delbin'en emaztea eta onein sendikoak.

Bertsolariak euren ekiñaldia egin ondoren, EUSKE-RAZAINZA'ren Lendakari dogun AKESOLO'tar Liño aitak ormako oroi-ikurraren estalkia kendu eban eta erriak txistulariakaz batera uskerearen ereserki bat abestu eban. Urrengo dantzaldi ederra ta jatorra emon eus-

kuen Zeanuri'tarrak, gitxitan ikusiak diran dantzak, eta egokiro dantzatuak.

ZEANURI'KO ZULAIBAR LAN-IKASTEGIAN

Egun eder eta gogoangarri au amaitzeko, erri-giroko bazkaria egin genduan Zulaibar'eko Lan-Ikastegian. Bazkaria gozoa, egokia, sasoiz eta ondo mairatua.

Akeitaren sasoiria eldu gintzazanean, olako eguntan utsik egiten ez dauan Solozabal'dar Paulin olerkari ezagunak abestu euskuzan bere olerkiak eta Bertsolariak erantzun eutsoen. Paulin'en bertsoak be ZER onetan argitaratzen doguz.

Gero Gontzal Mendibil, Zeanuri'ko gazte abeslari ezagunak abestu eban. Abestiaren esaldiak, Gabirel Manterola'k berak emonak zirala esan euskun.

Orrean amaitu genduan egun pozgarri ori, amaitu edo guk beintzat urten-bearra izan genduan geure lanetara sartzeko eta an geratu ziran maikideak giro onean.

Gabirel izan dakigula eredu euskal-lana egitean eta bere ikur-esaldia bete daitela gure bizitzan: "EKIN ETA JARRAI". Izan be ekin zan berak ainbeste lan eginda, Jaungoiko-Zale alkartean ateraten eban aldizkaria, eta Ander'ek bere berbaldian esan eban lez or isilleko mezu bat dago. EKIN atzekoz aurrera irakurri ezkeru "NIKE" da eta nike gerkeraz "Garaipeña".

GAMIZ'ek

MANTEROLA TA URIGORIA TAR GABIREL OMENALDIA

1890-1990



Omenaldiko berbaldiak: Ezkerretik, Olazar'tar Martin, eratzaillea; Santi Onaindia, izlaria; Ander Manterola, /obeia ta izlaria; Sabin Intxaurrega, alkatea; Maitena Belaustegigoitia, izlaria; Pedro Zelaia, izlaria.

OMENALDIA

DON GABRIEL MANTEROLA EIBAR'EN

KONZILIO ESPIRITUZKO GIZONA

Konzilioa baiño 50 urte leenago ba-zan Don Gabriel Manterola Konzilio espirituz bizi zan abadea.

Bera Eibar'era etorri zanean 1915'gn. urtean, abade gazte oraindik, langille erri aretan beste abade jator batzuekin aurkitu zan: Polikarpo Larrañaga, Euskal Langilleen Alkartea eratu ebana: Jon Ibargutxi, ainbeste euskal libururen egillea, danak Erljio gaietzaz; Eugenio Urroz, puntarengo parrokoa; Mateo Uriarte, lemoar abade jakintsua... Etzan goxoa orduan Eibar'en zomatzen zan giroa. Gorrikeria oso indartuta zegoan. Kristauak naiko kikilduta, kemenaren bearrean...

Giro artan murgildu zan Don Gabriel. Beriala danen lagun egin zan. Bere jokaera errikoiaz eibartarren biotzak bereganatu ebazan. Etzan izaten zailla gure abade au berbetan ikustea kalez-kale arrain saltzen zebillen andratxo batekin, edo Casa del Pueblo'ko sozialista bategaz. Danak agurtzen ebazan berak eukan apaltasun irripartsu arekin. Danekin jarduten zan berbetan eta edozer gairi oratzen zekian sakonki eta atsegintsu.

Esan bearrik ez ume eta gaztetxoak zirala bere kutunenak. Bere erdua oso bultzagarri gertatu zan asko eta askorentzat.

Toribio Etxebarria, orduan Eibar'ko sozialisten buru eta maixu zanak idazki batean aitortzen dau Don Gabriel Manterola'ren bizitzak zelako eragiña sortu eutsan, eta zenbat aldiz gerrako egun latzetan bere eredia burura etortzen jakon. Bai, duda barik, bere abade-bizitz zintzo, zabal, erriko, alai arek on izugarria egin eban gure arma-errian. Benetan, Konzilioa sortu aurretik, Konzilioko abade lez jokatu eban Don Gabriel Manterola'k.

EUSKALTZALE

Euskeraren bultzagille izan zan gure Gabirel. 22 urtean monjen kapellau eta zuzendari izanik, aal eban euskera guztia sartzen saiatu zan bere lekaiame aien liturji osoan: Mezatan, otoitzetan, erlijiosa profesioetan eta abar...

Berari, Don Gabriel'eri entzunda daukat, Eibar'era etorri zanean, parrokiaren Errosarioa euskeraz errezatzen asi zala. Berak, pulpitorik, euskeraz, baiñan, beetik, abots sendoz beste batek erderaz erantzuten eutsan. Etzan baiña gure abadea kikildu. Berak erriaren izkuntzan otoitz egiten eban. Galdetu eban ia nor ete zan erdel-

zale ura. Alkate izandakoa zan, eta berak, ain zuzen, bigarren karlistadan, agindua emon eban parrokiaren Errosarioa erderaz errezatzeko. Don Gabriel'entzat, ordea, agindu arek ez eukan indarririk.

Manterola abadiak lan asko egin eban Eibar'en Kristau-Ikasbidea azaltzen. Esan bearrik ez berak Dotriña guztia euskeraz azaltzen ebala. Gogoratzen naiz, gaztetxo nintzala, zelan etortzen zan Don Gabriel gure ikastetxera. Irrikatzen egoten giñan bera noiz etorriko zain. Ago-zabalik, bai, askotan, arek kontatzen euskun histori, ipuiñak eta gertakizunak pozkiro entzuten. One tan, Dotriña, histori, gertaera eta eredu bizigarriekin apainduten oso yayoa zan.

GIZATASUNEZ BETEA

Iñoiz ez gendun ikusi Don Gabriel illun eta goibel. Alderantziz, beti irripartsu eta alai. Poz emaillea zan. Alkarrizketarako beti gertu zegoan. Gizon atsegiña bere jakinduria agertzen, eta ori egiten eban batere arrotasun barik. Edonun zala, beti gertu zegoan laguntza eskintzeko. Ara, egun baten, Eibar'en monjak zuzentzen eben ikastetxe batetik neskak aitortzera deitu eutsoen. Eztakit zergaitik, baiñan bat bakarrik aitortu aal izan eban. Ama Loiola, bertako lekaiame zeanuritarrik, ikastetxeraiño etortzen abadiak artu eban neke-aldia ikusirik, minduta agertu zan. Don Gabriel'ek, baiña, erantzun eutsan: Jesukristo'k ez eban bere bizitza emon neskaitilla onegaitik!

Don Gabriel orrela bizi izan zan: beti danen serbitzuan. Eta esan geinke bere idazkien bitartez serbitzurik onena eskiñi euskula danori. Oraintxe ikusiko ba'neuke lez gogoratzen naiz, monjen komentu ertzean zeukan bere etxian, liburuz beteta zegoan bere "despatxuan", zenbat lan, zenbat idazki, zenbat liburu-gai, 22 urtean zear ez eban egiñ! Langille purrukatua izan bait zan.

Amaitzeko, au esan gura dot: Eibar'ek zor aundia dautsala Don Gabriel'eri, Bera ezagutzeko zoriona euki gendunok, ezingo dogu iñoiz bera aaztu. Beragandik asko ikasi bai gendun abade lez, euskaltzale lez eta gizakume lez. Berari, bere jaiotzaren eungarren urtean, auxe esan nai dautsat: Eskerrikasko Don Gabriel, bereziki eibartar guztien izenian, eta zerutik jarrai laguntzen zu sortu ziñun Zeanuri'ri, berdiñ zuk ainbeste maite izan zendun ibar, Euskalerra ta mundu guztiari.

ZELAI'A'tar PEDRO

UMEAKAZ ERBESTERA

Guda aurretik Eibar'en, iru abade ospetsu aurkitzen ditugu: Don Poli, Ibagutxi ta Gabirel Manterola. Eta anaiarteko gudeak bultzaturik, euskaldunak erbestera joatean, irurok, bakoitza bere aldetik, eurok be erriarekin doaz erbestera. Euskaldun abade eredu, erriaren laguntzaile, argi-emoile, fede-suspergarri izaten.

Don Gabriel bera, Jaungoiko Zale tab'eko idazle, ekintzaile egon-eziña Eibar'en Isasiko Mojen ikastetxe-ko kapillau izanik, ango neskatoen kristiñau bizitzaz gainera, parrokiako umeen kristau ikasbide, autortza ta Jaunartzez arduratzen zan.

1936'ko Irailan, Eibar gudaleku lez biurtzen zanean, gudea egiteko ez diranak alde egin eben bertatik. Don Gabriel'ek be urten egin eban.

* * *

Ikastoletako arduradun eta bateratzaile nagusi dan Luis Agirre abade gazteak diñonez, Euzko Jaurlaritza sortu ta laster, testugintzan eta ab'ean Ezkuntza Sailean dabiltzan abadeen artean, Manterola dago.

Gudatea aurrera joiala, Luis Agirre-ren esanez, Euzko Ikastolen arazoak geitzen doaz. Ezkuntza Saileko lege baten bidez, Euzko Ikastolak eta nai izango dabene lenengo maillako beste eskolak be, bere babesean artuko ditu. Estaduaren menpeko eskoletan, ez da erlijio-rik emoten: alegindu bearra, eskolok jaurlaritzara joan daitezen.

1937 aurrera doala, erbestera joateak gertatzen asten dira, bonbaketa eta erri triskantza ta eriotzak geitzen. George Steer, "The Times" egunkariaren barriemoleak Uurango ta Gernika'k jasandako bonbaketen barri zeatza, ildako ta zaurituriko umeekin emotean, erri sentipenak eragin aundia izan eban Bretania Aundian batez be.

* * *

Orduan, Mrs. Maning, ezitzaile ta diputadu laborista andreak, Londresen, "BASQUE CHILDREN COMMITTEE" batzordea sortu eban, Britania Aundi guztira zabaladuta, euskaldunen umeak bertara eroateko. Ara joan ziran eta guztientzat aiztu eziñeko laguntza izango zan ori.

Gerrateko jazoerak kontuan arturik, erbesteratuena ontziak babestea erabagi eban Ingalterako Flota Errealak.

Guda-esia estutzen doa Bilbo inguruan... Egazkiñak egindako ilketakaz burua galdurik, bildu ak eraginda, Euzko Ikastoletako umeen ama batzuk, sozialisten Kolonia bat euron umeena baiño lenago doala Frantziara ta asarraturik, Ajuriagerra beartu gura izan eben "berealaxe" euron umeak ataratera... Orduan arek, erderaz ama danak ulertu dagien:

"Me amenazan ustedes con enviar a sus hijos con las colonias socialistas: háganlo. Pero ninguna colonia nuestra saldrá de aquí sin que lleven sacerdotes, maestras, enfermeras y demás personal necesario. Y sepamos a dónde llevarlos".

Alan da guzti be, naiko iztillu izango eben, "ume-lapur" areik! Umeak, Erriaren itxaropena ta geroa, onik atara bear ziran; osotasunean jagon, gorputz eta ariman. Olan, beste gure abade batzuk lez, Don Gabriel, umeen zuzendari ta fede-jagole izaten joan zan.

* * *

Maiatzaren 22'an, "Habana" transatlantikoan Santurtzetik urten eta 23'an, 36 ordutan Inglate ara, Southampton'era iritxi.

Bretaña Aundira joandakoak, guztira, 3.890 inguru izango ei ziran; 215'en bat irakasle ta laguntzaile eta 15 apaizek osotua. ("Album para la historia"n Don Gabrielen argazki bat dago, "Habana"n ataratakoa, "Belgika"n egiña dala diñonarrek.

Inglatera'ra joandako 15 abadeetarik bi gitxienez, Zeanuritarrak Bigarrena Larrakoetxea'tar Bedita. Ugalde Elorriokoa, Zubeldia...

Egun orretan bertan gu be, Santurtze'tik baiña beste itxasontzi baten, "Galea"n Frantziara, Bordelera joan giñan, errefuxiatuen barku guztiak lez, gudontzi britania en babespean...

Baiña bai Ingalterran eta bai Frantzian, erriaren eritzia ez etorren bat: batzuk erbesteratuak artzearen alde ta besteak ez...

* * *

Franco'renak iñun dan zabalkundea eginda euken gure aurka. Propaganda o eri esker, osoan esanda, katolikuen artean ez gaitue onartzen eta beintzat gure lenengo lagunak ezkertak ak izango dira.

OMENALDIA

Olan, gu lurreratzean Poillac portutik Bordelera tren berezian eroan ginduezanean, soloetako lugiñek ikubillaz agurtzen ginduezan.

Erbestean gure abadeak, Eleizearen aginpidearen aurka jagitakoak ez zirala agertu bear izan uste eben. Eta erbesteratuak abadeak lez, euron jokabide ta bizitzaz ondo be ondo erakutsi eben, pertsona zintzo ta zuzenak zirala. Atzerrian euskaldun abadeak, guzur baltz eta iraiñen aurka egin bear izan eben, EGIAREN ALDE EGITEN, EGIAREN NUNTZIO IZAN, Don Fortunato Unzuetak, Aita Santuaren Nuntzioari esan eutson lez.

Belgikan bultzi baten gizon bi, euskaldunak zirala ta jardunean ei joiazan... Katolikuak izanik gorriakin, bat eginda Kruzadearen kontra joiazala etab... Amaitu ebeanean, euron alboan joiian abade txiki batek berbea arturik, euskaldunen edestia azaltzean, belgikar biak arri turik diñotse azkenean:

—Baiña zuk zelan dakizu guzti ori?... Eta berak

—Ba, euskalduna nazalako!...

Abadetxoa, oraindik gugaz daukagun Barandiaran izan zan.

Gabirel Ingalaterra'ra joan zanean ez ei ekian inglesik. Baiña laster ikasi eta gai izango zan bere errikideak eta bere zainpeko umeak zainduta bakotitza bere lekuan ipinteko. Zerbait esan gura dau arako, 1938'an ingele-

sez egindako olerki arek: "When the sunset is coming", arratsbera eltzean... "Gorriak" ikusirik Ingalaterra aretan, sarritan ikusiko eban bai, eguzkia sartzen, illuna etorten...

* * *

Buruz, ez ei zan baikorra; biotzez bai! Zer ete da ori?... Buruak ulertzen ez dituan biotzaren errazoiak ala?...

Eztabaida ta burrukak Irlanda'ko Elizagaz euki ei zituan... Katolikuak txarto portau ei ziran... Eta diru aldetik eta arazoak... Baita maixu erbesteratuak erlejiñorik ez ebela gura ta, iztilluak. Baina berak bere artzain lanari jarrai... Durango'n ei dago berak lenengo Jaunartzea emon eutson orduko mutiko bat.

Oraintsu Durangon, Ingalaterran izandako "orduko neskato" biri, aitzak eurak, Don Gabriel aitatzean, arpegia alaiturik diñoste auxe: eurak neskato, andereiño bategaz London'go "Sacred Coeur" moja ikastetxe italiar dotore baten egon zirala, urte bitan, ona itzuli arte. Don Gabriel, kapillauaren etxean bizi zala ta eurok autortzen-eta joaten zala. Maria Luisa Esturo, euron andereiñoa izanaren zuzenbiderik ezin izan dot aurkitu, tamalez. Taldetxo ori, pozik eta ondo egon zirala ezin ukatu eta beste batzuk be ondo egon zirala dirudi.

MAITENA BELAUSTEGIGOITIA

GABIREL MANTEROLA

EUSKAL IDAZLE TA OLERKARI

Zeanuri ez da mekoa izan euskal literaturan. Gorbei kerizpeko erri onek emon dau fruturik gizaldiak zear. Eta euron artean bat Gabirel Manterola, gaur goretsi gura doguna.

Geiago barik asi gaitez lanen lenengoetatik.

1. Joan mendekoa dan **Juan Jose Urraburu**, jesulaguna, bertoko semea, filosofu aundia, 1844'an jaioa eta 1904'an Burgos'en illa. Loiola'n asi gizarte-gaiak irakasten, gero Frantzia'n eta Erroma'n jarraituz bederlatzi urtez Filosofia irakasten; Espaiña'ra bihurturik, Oña'n eta Valladolid'eko ikastetxeetako zuzendari izan zan.

Gizaseme argi ta jakituna zanez, an-emengo klasietan azaldutako gaiekaz, zortzi tomotan "Institutiones Philosophicae" deritxona argitara emon eban.

2. **Aita Martin Uriarte**. Ipiñaburu'n jaio zan 1878'garrean, Martiartu baserrian, 1980'an Larrea'n il zan.

Naparroako Billafrankan ikasi ebazan latin eta onen ingurukoak, karmeldar izateko; Larrea'n jantzi eban Karmengo Amaren abitua, ondoren Markiña'n ikasi Filosofia ta Burgos'en Teolojia; gero Larrea'tik; Markiñatik eta Begoña'tik predikari ta nagusi egin eban bizitza guztia.

Izlari ez ezik idazle gogotsu be izan zan.

1931'an "Karmengo Argia" aldizkaria sortu zanean, bera izan zan onen lenengo zuzendari; emen sail bi zitun bare-bereak: "Baserri-gaiak" eta "Egi biribillak"; lenengoak, baserriarrak illero zertan jokatu bear eben azaltzen ebenak eta bigarrenak, esan zorrotz-sakonak, ausnar-gai bikaiñak.

3. **Bizente Etxezarraga, "Zidorra"**. Alzusten jaioa, 1891'an. Argi ta bizkorra, urduri samarra; gizon lez zintzoa. Balmasedan ikasi eban. Gerra ostean Arjentina'ra jo ta an il zan, naiko zaar, 1969'an. Euskaltzale fiña zan, nainun aurkitzen zala euskeraz egingo eutzun beti; orrez gaiñera idazteari be ez eutson iñoiz itxi.

Zornotzako "Jaungoiko-Zale", "Ekin", "Zeruko Argia", "Euzkadi", "Euskerea", eta "Arrati'ko Deya"-n aren lanak ugari daukaguz, itz-lauz eta bertsoz.

Euskal literaturan bere jarleku duiña dau.

Teatru ta politika aldetik be ez eban lan urria egin.

4. **Goikoetxea anaiak**. Juan Jose (1891-1964) eta Felipe (1897-1952), biak bertoko semeak, biak jesuitak, Bizkaiko errietan oso ezagunak biak, biak ibilli bai ziran urteetan erriz-erri predikari; makiña bat lan egin eben Gernika, Markiña, Durango ta Arrati aldean! Errietan gitxik egin izan dabe oneik egindako beste lan arima arloan. Libururik ez euskuen itxi, baiña euskal aozko lan oparoa bai.

5. **Alejandro Larrakoetxea** (1892-1976). Ona emen iru lekaide, karmeldar artean Aita Ipolitito ta Maurizio, Kolonbia'n mixiolari, ta Benito Larrakoetxea, laterandarra, oraindik Oñati'n bizi dana. Irurok Undurraga'ko Altzagutxi baserrian jaio ziran, baiña Legoadi aitz-azpiko Atxondo'n bizi izanik, bakotxa bere praille ordenan sartu arte.

Naparroako Billafrankan ikasi zitun aita Ipolitito latin eta gaiñerakoak lau urtez. Larrean jantzi eban karmeldar abitua, Filosofia Burgos'en eta Teolojia Gasteiz'en ikasiaz. Gero maisutza egin eban ia bizitza guztian, Begoña'n eta Erroma'n, urte batzuk Probintziko nagusi ezik, beste danak Erroma'n igaro ebazan. Maite eban Zeanuri ta opor-aldian onaxe eukan joera, bertoko artzaiñakaz batez be autu gozoan astialdi atsegiñak emonik.

Begoña'n irakasle zala, eta aleman ikasle, lenengo "Euzko-Deya"-n zatika ta ondoren liburu eder batean "Grimm Anayen Ipuñak" eritxon liburua argitaratu eban, euskera eder gozoan.

Itzaldi ospetsuak egin zituan, Bolibar'en Simon Bolibar'en omenez eta Zeanuri'n, 1927'ko Andra Mari jaietan, adibidez.

Erroma'tik ainbat lan bialtzen zituan "Karmengo Argia" rako.

Aita Olabide'ren "Barri Ona" aita Ipolitito'k bizkaieraz jarri eban, eta azkenez, Erroma'n, asti-uneetan, Eleiz-Araudia, au da "Derecho Canonico" euskeratu euskun. Markiña'n il zan 1976'an.

6. **Benito Larrakoetxea**, Aita Ipolitito karmeldarraren anaia. Undurraga'n jaio zan, 1894'an. Zazpi neba-arreba izan ziran. Aita Benito'k, laterandar izan gura-ta, Alza-

OMENALDIA

sua'n osotu ebazan bere lenengo ikasketak, eta Oñati'n gaiñerakoak.

Gero azken gerraterarte, Oñati'n bizi izan zan latin, griego ta matematikak gazteai erakusten. Gerratean, eleiz-agintariak bialduta, umetxoakaz Ingalterra'ra joan, eta urte bi bertan egiñ ebazan.

Ondoren, nagusiak eskatuta, Argentina'ra aldatu zan, eta 1941'tik Salta'n daukagu laterandarrak an daukien ikastetxeko maisu. Ementxe dago ogetamar urtetan irakatsi ta irakatsi matematikak, Fisika ta Inglesa. 1972'an Euskalerriratu zan.

Euskal lurretik urrin-samar bizita be, ez euskun lan gitxi egin euskal arloan.

Ara orduko ainbat sari eskuratu zituan; an bertan, ingles idazle Shakespeare aundiaren ogetamarretik gora trajedi, komedi ta drama euskerara biurtu euskuzan; gaur bost liburu aunditan, euskeraz be, argitaratuta daukaguz. Shakespeare'ren lanak, teatru lanak pentsamentu, irudikizun eta izkeraz bikain be bikain egiñik dagoz, geienak bertsoan; erriaren aotik jasotako esaera dotoz eta irudikizun biurri-biurritz bateak.

Lan guzti au euskeraz ipiñi euskun Aita Benito laterandar, Zeanuri'ko semeak.

7. **Juan Atutxa.** Jesuitea, ta Don Pedro Undurraga'n gaur be ta Don Leonardo urteetan Ipiñaburuñ eleiz-arduradun, iru anai eleiz-gizon. Aita Juan, Durango'n eta Kolonbia'n irakasle, Durango'n il zan. Euskaltzale zintzoa, erbestetik ibilli arren, euskal kezka bizi izan zan beti. Liburuak idatzi ebazan, baiña bat batez be oso interesgarria, "Euskal Aditza"; luze ta sakon aztertzen dau gure berboa, urte askotan ausnartu ondoren.

8. **Eulojio Gorostiaga.** 1904-1932. Masmalen base-txean jaioa. Mezako egiñik, Nafarrate'n eta Yurreta'n egon zan lenengo eta gero Areatza'n, ementxe il zan. Gure izkuntzaz gaztetatik kezkatua, ikasle zanetik asi zan euskeraz idazten, Donostia'ko "Euskalerrriaren Alde", "Jesusen Biotzaren Deya", Zornotzako "Jaungoiko Zale" eta "Ekin"-en.

Lau liburu beintzat argitaldu zituan: 1) **Jesukristoren Nekaldia**; 2) **Sakramentu Deunaren Domingo aita**; 3) **Jesukristoren Bizitza umientzat**, eta 4) **Autorkuntza**. Onezaz gaiñera, "Arrati'ko Deya" (Zornotza, 1933), urte bitan atera zana. Lau orrialde eukazan, tamañu azitan. Euskera utsean, illean bein agertzen zana. Kulturaz jantzi nai ebazan arratiarrak. Bai **Deya** onetan eta bai **Ekin'en** baserri-gaiak azaltzen zituan aspertu barik.

9. "Aran" aldizkaria. Martin Olazar, Zeanuriko arimazain arduratsu zala, bere eleiztarrai, eta Arrati aldeko guztiai, euskal janari gozo ugaria emon nairik, "Aran" eritxon aldizkari bat sortu eban, dirala urte batzuk; berton etozan gaiak interesgarriak oso; etziran euskal idazle txarrak bertan lumaz ziarduenak. Labur, atsegiñez irakurten zana genduan zabaleran etorren guztia. Dirulaguntza ezagaitik egin eban porrot.

Orain olako zerbait burutu gurarik, Eusko Jaurlaritza ei dabil: bailara bakotxean, Lekeitio, Ondarru, Markiña... olakoxe orriak sortu ta zabaldu, errietan idazleak eta irakurleak ugaritzeko. Asmo guztiz txalogarria.

10. **Benjamin Manterola.** Olerkari gazterik il zana. Ipiñaburu'n jaio zan 1914'an; Paulo ta Luisa beronen gurasoak. Karmeldar izan nairik, Larrea, Markiña, Iruña ta Gasteiz'en ziarduan ikasketak egiten. Errepublika



Jaiotetzea eta orman oroDnen-ikurra eta oiñean Lino Akesolo, ikurra agertu ondoren, eta erritarrak abesten.



Zeanuri'ko eleizan senideak eta erritarrak.

garaia zan. Gasteiz'en bertan soldaduska egiten egoala gaixotu ta Militar gaixotegian il zan 1936'an.

Euskeraz arnas aundikoa olerkari zan, ikasle zala 14 bat poesi "Renacer" aldizkarian argitaratu ebazana. Itxaropentsu etorren.

11. Beste oraingo batzuk. 1980'garren urtean Martin Olazar'ek lau-bost Zeanuriko idazle barri aitutzen euskuzan: Iturtza'ko Josu Astondoa, Intxaurreaga'tar Sabin eta Koldo anaiak eta Lanbreabeko Itza, beintzat. Euskal idazleak bear ditugula diño, gazteak atan be, idazleak eta gazteak, ezpabere galdu egingo jaku euskerea.

12. Etkezarraga'tar Jesus Antonio olerkari saritua. Laukiniz'en Launxeta Olerki-Saria irabazi ebana. Gaur Euskal Telebistan lanean diarduana.

13. Eta azkenez, **Gabirel Manterola** (1880-1977). Ementxe jaio zan Arregia kalean bost urtetan ikasi eban Gasteiz'en Filosofi ta Teologia eta 1914'an meza barria abestu eban. Urte aretan bertan Eibar'en daukaugu San Andres parrokian abade laguntzaille ta Isasi'ko monjen kapellau; antxe bizi izan zan gerraldira arte. Orduan, Eusko Jaurilaritzak aginduta, Ingalaterra'ra joan zan ume talde batekin. 1948'an Euskalerriratu zan barriro, eta Zeanuri'n egon zan arrezkero guztian eleiz-lanean.

Euskal idazle lez, 1918'an asita, eten barik ekin euton idazteari. Zomozako "Jaungoiko-Zale" ta "Ekin" bere lanez bete-beterik daukaguz, zenbaki bakotxa bi edo iru artikuluz orniduta. Liburu batzuk be argitaratu ebazan, oneik, esaterako: 1) **Goi-izpiak** (1921), olerki sorta; 2) **Santuen Bizitza laburrak** (1925); 3) **Ipuintxoak** (1929); 4) **Agirre euskalzale** (1934), eta abar. Bardin itzulpen ugari be, euskeraz eta erderaz; Gotzain-idazkiak, berak biurten zituan. Bai inglesetik eta bai prantsesetik erderara itzulita be liburu-mordoa dauka.

Orduko egunkari ta aldizkari ia danetan idatzi euskun. Eta zelako idazlea da? esango daustazue. Ez txarra be, nik erantzungo. Ona eredugarri "Yakintza"tik artutako zati au. Ondarrutar Txomin Agirre'ri buruzkoa. Gaur gorriñea sarturik daukagun arren, euskerea aberatsa ala txiroa ete dogu?

"Euskera askok —idazten dau Manterolak— txirotzat dauke, eta euren bizian lau lerro irakurri ez dituen

OMENALDIA

sasi-jakitunak, ez dabilkiguz, au ta ori ta bestea, euren antzera, euskel gaietan sasi-jakitun diranentzat esaten. Baiña lurbiran izkuntza gaietan gizonik jakintsuen diranak, euskerearen sakontasun eta aberastasunetzaz esan dituenak gogoan eukitea naikoa da, auntzen gaberdiko eztuleri baiño jaramon geiago ez egiteko. Jakitun beste gauza batzuetan ba'leiteke izatea, baiña eztakien gauzetan sartzea jakitunen ezaugarri ez dala edonok daki. Entzun daiogun Agirre'ri: "Euskera aberatsa da, baiña bere aberastasunak toki batean esiturik eztagoz, Euskal-erri guztian zabaldurik daukaz: batzuk baso zugaztitsuen barruan, beste batzuk mendien egaletan, beste batzuk Kantauriko itxasoaren ertzean; Bizkaia'n legez. Gipuzkoa'n, Gipuzkoa'n legez Nafarroa'n, Nafarroa'n legez Frantzia'ko anaien artean".

Ez dabil, beraz, kilikolo ez aditzean ez joskeran.

Eta azken batean, zer olerkari legez? Naikoa idatzi eban beñik-bein "Jaungoiko-Zale", "Ekin", "Zeruko Argia", "Karmel", "Olerti" ta abarren. 1966'an nik bizitz datu batzuk eskatuaz berak erantzundako kartan, onela: "Laster beteten dira 52 urte Ienengo bertsoak egin nituala. Ilbarri dan nire adiskide kutun Igargutxi jaunaren eguna zan. Eta ez dakit zelan "Zorionak" emotea bertsotan urten eustan. Nire Aitaita bertsolaria zan, eta aren "axeak" bultzatu nonbait.

Dana dala, orduantxe asi zan bertsogintzan. 1921'an **Goi-izpiak** argitaratu eban, 42 poesiz ordidua. Egilleak asieran: "Giza-biotzak yoranez beragandu gura dituan Egia ta Zorunak, ludi onetako gauzetan susterrik eztauke; eguzkiaren izpi beroen antzera goitiko igaliak dira; norberagandu gura dituanak, ba, nai ta nai ez adimen biotzak goirantz jaso bear".

Mugaz andik Oxobi'k **Gure Herria'n** goratu eban Liburu au, eta Bilbaoko **Jesusen Biotzaren Deyak** onela: "Jaungoikoa ta euskera benetan maite dituztenentzat guztiz egoki ta atsegingarriak dira **Goi-izpiak**. Izker garbi ta leunezko lorez apaindurik eskeintzen zaizkigun neurtitz auek entzumena atseginduaz biotza berotu, ta burua goi-argiz beterik uzten dute".

Auxe dozue Gabirel Manterola. Eredugarri danontzat, bai Jainko-maitasunean eta bai euskal zaletasunean. Onetan emon eban bere bizitzaldi osoa. Aurretik be izan ditu omenaldiak, danak mereziak. Izan bedi gaurkoa be, aren suaren pizka bat guztion izatean barrentzeko.

Zeanuri, 1990-3-17'an

AITA ONAINDIA

OMENALDIA

MANTEROLA'tar GABIREL'eri (Zeanuri'n, 1990-3-17'an)

Solozabal'dar Paulin olerkariak benetan maite eban Gabirel eta orregaitik, biotz-biotzetik abestu eutson bazkal-ostean olerki au. Bere bertsoetan eta olerkietan sarritan egiten dauan lez, Paulin'ek Euskalerriko izadia, gizona ta lana alkartzen dauz, baiña begiratu dagigun gauzea zeatzago.

Lenengo aapaldian arkaitz-gaillur eta mendiak aitatzen dira, Lekanda gogoan zalantza barik, eta, nortasuna ba'lebe lez, zelai eta solo-zabaletara begira, ametsetan, zein ederrago leiaketan ikusten doguz.

Bigarren aapaldian, izadiko gauzarik ederrenetari-koak aitatzen dira: Lorea, landarak, ibaiak: larrosea alkar-tzen da maitasunagaz, zugatzak sendotasunagaz, zelaiak edertasunagaz eta ibaiak garbitasunagaz.

Urrengo aapaldi biak, baratz orretan bizi diran -giza-

kiak dabe gai, gizaki euskaldunak: Enda zarra, leiñar-gia, izkuntza bardinbagea.

Azkenengo aapaldian, izaditik, gizakia bide dala, egu-nari dagokion lez, Gabirel Manterola'ren omenaldira dator Paulin, bertsolarien antzera "in cauda venenum", azkenengo aapaldi onetan askatzen dau olerki osoaren korapilloa: euskal baratzean (izadia) jaiola, aita eta amaren bizia (gizadia), Gabirel zintzoa (gizona). Eta len ainbeste goratu dauan izkuntza, euskerea, da Gabirel'en aunditasuna: Errian xurgatu, gogo onenaz landu, lan eta olerkiz apaindu eban.

Orrelan aria arturik eta orrelan gaiak urrengorik urrengora egokiturik ondo ulertzen da olerki onen sakontasuna ta edertasuna. Zor jakon Manterola'tar Gabirel idazle aundi eta apalari olako eder-giroko omen bat.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

Euskalerriko lur mugaldetan
inguru ederrak dira,
arkaitz gallurak eta mendiak
zelaietara begira;
zelai orleiak eta solo zabal
ametsez adi begira,
alkarren leiaz zein ederrago
eta dan ikuspegira.

Baratzak daukaz larros gorriak
maitasun garrez betiak,
mendiak daukaz zugatz lerdenak
enbor ederrez jantziak;
zelaiak daukaz begiarentzat
lora zurizko pitxiak,
eta ibaiak daukaz ur garbi
leiar eta saltariak.

Euzko gizadik zer ete dauko...
zuregan zagoz asmetan,
izkuntz leiñargi zoragarria
enda zarraren muñetan;
euzko aditza, euskal jokoa
arrigarriak benetan,
bardingabea mundu guztiko
izkuntz artu-emonetan.

Euskal baratzan artu zenduan
aita ta amaren bizia,
Gabirel zintzo, xurgatu zendun
euskeraren arnasia;
gogo onenazjardun zenduan
lantzen izkuntza maitia,
ainbeste lan ta olerki pitxiz
apaindurik euskeria.

PAULIN'ek

MUNDUKO TXIROTRASUNA TA GOSEA

Otsailaren amaikan, domekea izan zan, ta munduan dagon beartasunaren edo GOSEAREN aurka, dirua edo mozkiña batu zan bai eleizetan ta bai kaleetan be toki batzuetan.

Danak emon genduan zerbait EGOERA gogorrean aurkitzen diralako jentetza aundiak munduan zear.

Ludi onetan bizi gara, gitxi gorabera, 5.000 milloi; baiña oietatik IRU ZATI, gosez bizi dira. Oneitatiek zati bat GOSE GORRIAN, ilbearrean.

Egunero, ez daukagu begiratzea baiño, telebistan zer diñuean, ta komunika bideetan zer idazten dauskuen.

Egunero gure belarrietara etorten dira AIZE zatarrak, bai Amerika Egoialdetik, Argentina, Brasil, Benetuela, Mejiko ta ala-ta-be Amerika erditik.

Onantzago be egoera obeagorik ez dago; Afrika aldean goitik bera asi, ta sortaldetik sartaldera, ez da ikusten telebistetan gosea, gaixoa, larrialdi aundiak... baiño.

Zer esango ete-dogu-ba Asia aldera begiratu ezker?

India, Iran, Irak, Beirut ta onein inguruan aurkitzen da burruka alperrekoa, gosea, ezereztasuna, gaixoa, ta abar ez da GIRO obeagoa.

Oraintsu arte IXILLIK egon dira Europa Erdiko gure jentetzak Komunismoan, ta exiltasun orren atzetik, ZER AGERTU DA?

GOSEA ta AMORRUA.

Jentetza GOSEZ ta AMORRUZ beterik, AUSAR-TU dira, arrisku bizi-bizian sartuta, euren Jaurlaritzen aurka jaiki dira. Orain arte, berrogei urtean. zear, euki dabezelako txirotasun ta gose gogorrean, izugarrian.

AZTERTU DAIGUN ZERGAITIK

Askotan entzun dogu bai eleizetan ta bai komunika-bideetan be, ludian naiko janari dagola, ondo ta zuzen banatu ezker.

Oso gatxa da edo izan bear da, ZINTZO edo BARDIN banatute ori.

ZERGAITIK?

Agindari txarrak edo borondate txarrekoak diralako.

Ori baiño txarragoa LAPUR OSOAK diralako asko ta asko.

Pentsatzen dabe, bein agintari izatera eldu ezker, LAPURRETAN egin bear dabela al dan guztia, gero andik aldenduten diranean ondo izateko.

Ez dot onegaz esan gura, guztiak onetarikoak dirala, badagoz, SALBUESPEN AINTZAGARRIAK, baiña asko ta asko, oraingo denbora-aldian ala-ta-be. Orain entzuten diran lapurretak ikaragarriak dira.

Txindurriak egiten dabena egiten dabe, al dabean guztia batu baiña besteak txarto ipiñi ta eurak IÑOREN LEPOTIK BIZI ta arek lur azpian egon daitezela.

Ez daukagu telebistaren aurrean begiak zabaltzea baiño, zelako iztillu edo zarraparrak izan diran Polonia'n, Txekoeslobakia'an, Hungria'n, Alemania sortaldean, Bulgaria'n ta Rumania'n.

CEAUCESKU 'k eta bere emazteak zelako asken zoritxarrekoa eroan dabean. Zertarako orrean billaketa guztia? Lur-azpira eroateko?

Ta gaiñekoak be espetxean sartu dabez euren BANAKETA zorigaiztoagaitik.

Nire ustez, KOMUNISMOAK esan nai dau, dagoanean danontzat egon bear dauala ta ez dagoanean iñontzat be ez.

Baiña ori ez dabe alan ulertzen askok. Gora igoten diranean.

Komunista artean be GOGO guztitakoak egongo dira, bai zuzenak ta zintzoak ta bai ALPERRAK.

Batzuk egongo dira ILDURA egin gura dabena ta euren noizbaiten euki-, zerbaiten JABETASUNA izan. GURA ORI bardintasunagaz ilten badabe, lana egiteko gogoa ildabe, lurak ta LUR-GAIAK landuta emozteko MOZKIÑA. Zer jazo zan Alemania'n, guda ostean?

Alemania'k aurkitu eban bere laterria lurra jota, dana triskatuta, austuta. Ta zergaitik andik amar urtera jaso eban, edo munduaren jabetasunean buru izan ziran!?

Lan egiteko gogoa euki ebelako. Lanean gogor ta zintzo asi ziralako.

Dana ezeztatuta aurkituaren, euren borondateak, gaiñetu eban ezereztasun guztia.

Orain laterrien nagusi aurkitzen da. Emendik denbora asko izango ez dala Alemani biak biltzen diranean, ikusiko dogu, danen gaiñetik jarriko dirala.

Ta besteok zer egingo ete dabe?

Naita laguntza euki, laguntza ia beti izaten da URRIA, ESKASA, baiña alemanarrak bezela borondatea ta lana

ARAZOAK

egiten badabe, JAIKIKO dira, NORBERAGANAKO MAITASUNA eukiko dabelako.

Orrek itzartzen dau jentea, ez komunismoak, emen alperrak ta langilleak bardin bizi dira baiña ori iñun be ez da izango erri jasotzailea.

KOMUNISMOA NUN

Ikusi dogu ainbat laterrietan oso txarto EGITERA-TU dala komunismoa.

Orain beste aldea ikusi bear dogu. NUN?

Nik orain artean ikusi dodan KOMUNISMOA egiteratzen da bakarrik ondo, LEKAIDE TA LEKAIME-ETXEETAN.

Amazortzi urteetan nik orixe ikusi neban Marianisten artean.

Ta onein artean bezela uste dot, ta ikusi dot ERRE-LIGIOSO talde guztietan alan dala.

Zergaitik? An ez dago iñor gogorrean sartuta danak dira borondatezkoak.

Nai dabelako egoten dira. Sartu baiño lenago ikasi ta ikusi dabe geroko zeregiñak, zelakoak izango diran.

Orreitz ganera EZKEINTZA bat aurretik egiten dabe, txirotasunean ta garbitasunean bizi gura dabela ta nagusi baten esanean egon.

Nagusiak ta azkenengoak MAI baten jaten dabe ta bardin; askotan nagusiak SERBITZEN dau maia ta ez dago morroirik orretarako danak dira serbitzailleak.

Ori izan zan KRISTO'k erakutsi euskuna, bai eurai ta bai GURI.

Jantzian be bardin ta dirua bear danean, guztie antzera emoten jake bai bidai bat egiteko, edonora joateko, ta abar.

Goizean danak TXILLINAREN OTSEZ jaiki ta gero OTOI-TOKIRA joaten dira Jainkoari egunerako onetsia eskatzen.

Dana egiten da ixillean.

An Nagusiak ez dau ezer arrapatzen beretzako gero ondo pasatzeko edo bizitzeko. Ziur dago gerokoa.

Ondiño egun asko ez da, LEKAIDE BAT askenen-goz, ikusi dotela gaixorik, bere gelan, gaixorik txarto aurkitzen da, bere gaixoagaitik BAIÑA ESAN BEAR DOT, ONDO BAIÑO OBETO ZAINDUTA DAGO-LA, ezer ez jakola falta. Garbi ta argi ikusi neban bere ingurua, mai, ogea, ta bere jantzi ederra. Ez dot uste ondo bizi diran sendiak be, ain garbi eukiko dabenik gaixo bat.

ONDIÑO GEIAGO

Errepublika sasoian 1932n. urtea zan, eta aurkitzen nintzan Donostiko Aldapeta Kalean, 5'ean. Toki au Marianistena zan, Ikastetxea. Orduan aurkitzen giñan bertan 26 edo 27 maixu edo niretzat PROFESORE, oraingo *irakasle*, itz au ez jat bapere atsegin.

Ogeitik irurogei urte bitartean adin askotakoak giñan.

Orduan zarraparra cdo iztillu asko izaten ziran kalean zear, baiña gure artean, lekaide-arteon ez zan izaten olakorik.

Ez genduan EZTABAIDARIK eukiten gure artean. Bakoitzak eukan bere ideia edo ASMOA; orduan batzuk ziran Gilrroblezenak, beste batzuk Monarkikoak edo abertzaleak.

Danok giñan tituludunak eta ondo asi ta ezikoak. Orregaitik ez zan izaten ezelako itz gogorrik ta ez asar-rerik. Afal ostein izaten zan danok egoten giñan ordu-rik alaiena. Ordubete inguru-izaten zan danok alkar-izketan egoteko. Orduan izaten ziran itz-bitxi, txantxetak, gordinkeriak ta abar. Une oso gozoa izaten zan. Egun osoko zatarkeri edo GOIBELAK kentzeko ordua ta danok bakean ta alaitasunean OGERATZEKO.

Ta ordua elduten zanean OTOI-TOKIRA, danok irribarreka abiatzen giñan gure azkenengo otoitza egiteko.

Au bai zala komunista berezien etxea. An ez egoan Europa aldean agertu dan zikinkeririk ta ezbearrik.

ISIDOR ETXEBARRIA

PIGMEO ERRIA

150.000 milla inguru dira eta gizarte mailletan aizkenengoan daude. Oiek bezin arloterik ez da besterik ludi osoan. RCA'n bizi dira: Afrika-Erdiko-Errepublikan.

Afrika'ko lenengo biztanleak izan arren, gaur aizkenak dira eta ez du inork euren alde abotsik eta zaratarik ateratzen. Auen aldeko ekolojistikariek ez dago txirotasunean txiroenak bait dira: baita inoren laguntzarik ez izatean ere.

Erreusak dira: beti beuren begiak lurrera begira... Museo batentzako antropologiko ikusgarri bat, besterik ez; lenago Afrika'ko nagusiak ziranak. Gaur euren inguruko erriantzat ez dira gizonkiak, animalien antzekoak baizik. Laister galduko dira erri bereizi bat bezala.

Basora joan giñan euren billa eta bereala konturatu, basoak sailletan eremu biurtuta zeudela. Zura eta egurren billa joandako Konpañiek soilduta utzi zituzten sail oiek... Gero eta baso gutxiago Pigmeorentzat. Amazonia berria emen dago: baiña, txikia arekin konparatzeko eta onen gomutarik ez du inork. Galbidean jarrita daude basoak eta Pigmeoak, basotik kanpora eriotzara goaz-eta.

Basoan diran bezelakoak agertzen zaizkigu: apalak, alaiak eta ongi-etorria ematekoak. Illebate batzuek tokian tokiko; gero, penarik gabe, etxea utzi eta badoaz beste toki batean etxea berriro jasotzera. Euren andrak ordu pare bat naikoa dute etxe berria eraitzeko. Eiztariak dira eta ibiltariak; toki berean luzaro egon eziñekoak.

Talde txikia, 5'tik 30'rako personeren taldeak. Dagonen jaten dute eta ez dagonean, billa joan. Daukenez ematen dute. Senarrak emazte bakarra eta alderantziz ere, emazteak senar bakarra. Aske eta iare bizi dira, oianetako legeetan, programaziorik gabe. Begirakun jatorra, gizaki askeari dagokiona, aurpegian...

Baiña, basotik alde 'egindakoak badituzue beste gizakien serbitzari. Auek, gizatasuna galduta, egoera penagarrian daude. Ez dute diruaren baliorik eta edozerekin ordaintzen diete beuren lanak. Askotan zigarro eta alkoholak. Doakabeak benetan, bigirakuna tristea eta galdua begietan. Beuren etxean baztertuta, gizatasunik gabe: begi-ninietan enda baten eriotza nabari.

Dantza danean, guztiak dantzaten dira, pigmeoak ezik. Inork ez du eurokin ez jan eta ez erango. Eta, azkenik, badira andra pigmeo bat artzen dutenak euren irugarren edo laugarren emaztetzat.


Euroen ardura dutenak ez dakite zer egin; baiña, askoren iritzia auxe da: basoan egoki bizi ba'dira, zertarako eta zergaitik basotik atera? Basoak bear dituzte euren egoitzarako eta baso oiek zaintzea izanen litzake Pigmeoentzako laguntzarik onena.

Legenarra (lepra) eta birikietako gaitza dira ugarrienak euren artean. Sendatzeko bide gutxi.

Beuroek bizi diran Afrika-Erdiko-Errepublikan gure munduko aurrerapenak eldu dira "video-club" eta guzti. Pigmeoek arri-eta-zur daude, begiak zabalik, eta ez dute ulertzen zergaitik eurok ezin parte artu ditekunik orrelako dantza eta festetan... Ezta ere zer gertatuko zaien basoa galdutakoan... Amazonia'ra millaka kilometro asko tartean. An indioek daude egoera larrian eta askok jaso dute beuren garraxia "Salba dezagun Amazonia!" Pigmeo gixajo auek ez dute alakoen berri eta begiak lurrera dituztela, salbatzalleren baten zai daude.

"Mundo Negro"tik: XII-1989.

ANES ARRINDA



ARAZOAK

EZ DOGU ITZIKO

Orain urteak dirala, epaillak edo martiak misioñoi ardurea gogoratzen dausku. Ille au da, izan be, Eleizbarruti euskaldunak misioñoi-zeregin bat artu genduala gogoratzen daukun illea.

Aurten gure eleizetan aizeak eraginda aidean lez ibilliko dan ikur-esaldia auxe da: EZ DOGU ITZIKO.

1948'tik ona asko aldatu dira gauzak. Dirua ta ondusunak ugaritu egin jakuz, baiña ametsak eta balioak laburtu ta urritu.

* * *

Elezbarruti misiolariak ez dira berez sortu diran gauzak.

Antxiña, an 1920n.urtean ipiñi ziran oiñarriak, 1930n.urtean eregi zan erakundea eta 40'ko amarka urteetan asi zan amets aundiaren lana.

Gogoratu izen gogoangarri batzuk: Zameza, Barandiaran, Sagarminaga... batzuk baiño ez gogoratzeko. Orreik sortu eben gogo bizia.

Zunzunegi, Gisasola ta jarraitzaileak bete eben gogo bizi ori. Eurak izan ziran bide barri ori zabaldu ebenak.

* * *

1948'an zortzi abade euskaldunek artu eben lurra Euador'eko zelaietan. Los Rios eritxon misioñoi aretan. Eta urrengo, emakume misiolariak eta gure parrokieta-ko gazteak.

Poztasunezko ta ametsezko urte ederrak ziran areik. Biotz zabala ta eskintza bizia dan gogo au bere erpiñera eldu zan 1950'etik 1960'ra bitartean.

Amerika zabal areitan misioñoi-lur barriak etorri ziran, Brasil'en Benezuela'n eta Txile'n, misioñoi barriak asi ziran. Orduan asi ziran, baita, Zaire, Angola ta Rwanda'koak. Afrika'ko baltzen artean oneik.

* * *

Jaungoikoak abadeak ugari emoten euskuzan orduan, eta ugari eskintzen genduzan misioñoietarako.

Espirituak gure parrokiatan gogo bizia sortzen eban, eta ortik gertatzen ziran laiko misiolariak.

Gure artean ugari egozan lekaimetzarako deituak be eta misioñoi-laguntzarako sortuak ziran alkarteak misiolari asko bialtzen ebezan, euren artean ziran alkarkiderik bizienak bialdu be.

Kristo'ren mezulariak erririk erri joiazan. Liburu-txuak, aldizkariak eta liburuskak euren barria emoten eben, misioñoietako bizierea zelakoa zan zabaltzen eben.

Aiztu-eziñeko urteak areek: Ugari artzen genduan eta ugari emon. Gogoz eta gurariz aberatsak giñan eta edonon agertzen ziran misiolari barriak. Bideko eragozpenak ez ziran ezer, biotzeko santutegian bizi zana agertzea alboratzeko. Ekaitzak ba-ziran, baiña dana joian aizeak eroanda lez.

* * *

Eta aurtengo martiak ez dauko udabarriaren asieraren antzik, udagoiena dala esan lei, negu gogor baten aurrea dan udagoiena.

Amarka urte bi daroagoz udagoien netan, negu luze-
ra sartzeko gogo barik.

Gure elezbarrutietako eleizentzat eriotzea litzake, misiolariak izateko gogoia galtzea eta misioñoi-lana iztea.

Samintasunaz aitatzen dogu Txile, Brasil eta Benezuela'ko misioñoiak itzi bearra izatea. Or be bizidun guztiak daukezan antzeko arazoak izan ziran, baiña oiñarri-oiñarrian zarratze orren zioa misiolarien urritasuna izan zan.

Jaungoikoak nai izan dau Zaire'n eta Rwanda'n misioñoien azkena etortea, bertako semeak diranen eleiz-deiak ugariak izan diralako.

* * *

Asko aldatu dira misioñoiak, geure Eleizbarrutiak be asko aldatu diralako. Len ugari-unea zana, orain dana biurtu da basamortu.

Antxiña Israel urrezko zezenetara biurtu zan eta guri be olako zerbait jazo jaku, domu-zalekeri biotz-bakoak, legortu dauz gure odol-bideak eta gure indarrak urritzen-urritzen doaz.

Dana daukagu eta ugari euki be, eta gure gogoia norberetokoi eta nerberaren gurtzaille biurtu da.

Abadeok, geroago ta ugariagoak diran ule zuriak orrazten doguzan artean, esku bateko atzak diran nainkoa ordez datozen barriak zenbatzeko. Gure parrokiak makal dagoz, abar barririk sortzen ez jakela, gure lekai-detxeak eriotza gozo baten ondoren ateak zarratzeko gertu dagoz. Israel'en ondakiñen antzekoak gara, txikitasun eta txirotasunean, Jaungoiko Salbatzailleagan ipinten dau bere uste osoa.

* * *

Baiña GUK EZ DOGU ITZIKO...

Ez dogu itxi bear, izten ba'dogu Jesus'en Eleizea izatea izten dogulako, ebanjelioa bera zarratzen dogulako.

Len bizi izan dogu Kristiñau Zarren aintza eta Orain Kristo'k nai dauanez, bere argia, gatza eta legamiña izan nai dogu, bere artegi txikia, indar barik, aintza barik.

Misiñoia aurrera doa, aurrera joan bear dau, zintzoak izan nai ba'dogu. Ez daukagu geure txirotasuna baiño asko geiago, baiña Jesus'ek bere laguntza emoten dausku ebanjelioko berbak era barri baten irakurteko, gutzat betebearra diralako len irakurten ez genduzan era baten.

* * *

GUK EZ DOGU ITZIKO, eta ez izteko, gure txirotasunetik emoten jarraitu bear dogu, eta biotz zabalaz emoten.

Ez dogu emoten geiegi daukagunetik, bear dogunetik baiño. Guk ez dausagu bildurrik Jaungoikoari: Asko emoten ba'dogu, asko emongo dausku.

Eta emon dagigun daukagunik onena, Jaungoikoa ez da geratzen atzean.

Epaillaren 19'a. San Jose eguna, Eleizbarrutiko misiñoien eguna: EZ DOGU ITZIKO.

Legartza'tar Joseba 1.'k.

LIBURUAK	
Nora Zoaz	600 laurleko
Giza Soiña	800 »
Iniciación al Euskera	800 »
Irakurgai errezipolitak I	200 »
(Zenbat Urte)	
Irakurgai errezipolitak II	200 »
(David Copperfield)	
Aurtxoa II	100 »
Eginkizunak I	100 »
Eginkizunak II	100 »
Eginkizunak III	100 »
Euskal Irakasbide laburra	800 »
(Gramátika X. Peña)	
Diccionario Ikas	900 »
Ipuñak	800 »
Ipuñak	800 »

Alboan agertzen diran zerrendako liburuak salgai dira «EUSKERA-ZALEAK» 'en idazkaritzan.

Colón de Larrecátegui, 14 - 2.º
Teléfono 423 53 22
B I L B A O - 1

Los libros al lado indicados pueden adquirirlas en las oficinas de «EUSKERAZALEAK».

Colón de Larrecátegui, 14 - 2.º
Teléfono 423 53 22
B I L B A O - 1

PERESTROIKA EGIN-BEARRA

Oiñarri gogorak ezarrita urtietan irauteko eran atonduta zireala uste zatekean jaurlaritzta ta alderdirik gogorrenak lokatu izan dira, goizerik gabera, Europa-aldean, Gorbachov'en **perestroikaren** eragiñaz.

Arritzekoa bere ba-da Marx'en irakatsien zale direan buru--gogor orreik euren indarkerizko aginpideak geiagoko barik itxi edo aldatu-bearra.

Gizartekeriaz bizikerea atondu ta mundua zoriontsu egingo leukiela uste dabena ba-dabe zertaz oldoztu jazokizun orreik gogoratuz.

Abertzale-longaiñaz estalduta gure Errian Marx-Lenin'en irakatsiak ezarri-guraz nabarmenkiro diarduen naaste-zaleak ez ete-dira konturatuko eurak ontzat daukiezan, eta abertzale-izanez marraxokeriz zabaltzen diarduen ames eta burutapen arrotzak molokot egin dabena?

* * *

Onak olan direala au, urrengo autu au yator burura: Euskalerrian bere ba-doguzala **perestroika** egin bearreko erakunde batzuk; besteak beste, Euskaltzaindia.

Guzti zalekeriaz eta goitik-beera legeak ezarteak ez dakarrela gauzonik ikusi egin dabe, berandu bederen, Europa'ko Komunista-alderdiak. Emengo euskaltzaiñak bere konturatu bear leukie, berandu izan baiño leen, goitik-beera ta indarrez ezarri-gurako aginduak erriak ontzat artzen ez dauzana eta zeozer atontzekotan, leentxuago-gerotxuago urten egiten dabena, guztia lorrinduta itxirik: Eurak, **el batua-zaleak**, esango leukienez, **inposatutako** aginduak erriak egundo bere ez ditu ontzat artzen.

Azken-urteotan benetako euskereari euskera-gaizto orrek egin izan dautsozan kalte lotsagarriak gogoraturik, izkera zikin baizen kaltegarri orreri be **perestroika** egin bearrean zarie, ba, zuok bere, euskaltzain jakitunok, erriaren benetako izkuntzea maite baldin ba'dozue ta euskereak bizirik iraun dagian gura ba'dozue, beintzat: Oker egiñak zuzentzea jakitunena danez, azken-urteotan euskereari egin izan dautsozuezan kalteak zuzentzen alegindu ba'zadize, biotzez eskertuko zaitue Euskalerrriak. Bai orixe!

Eldu egiozue ba, sendo, benetako erri-auskera ederrari, euskaltzain jaunok, eta, euskalki batxu bere baztertutagarrik, ekin daiogun geure izkuntza zaarra barriztetan eta ez buru-bero gitxi batzuk ezarri-gurako eizatzestu eta ostopoz beterikotik guztiak eroan-guraz arbuia-garriro jardun.

Ez gagoz, ba, iru-lau lorrin-zalien artean iribian ta atondutako euskera-gaizto baizen baltegarri orren ordegeure bizitzako ar-emon guztietan beti erabilli izan dogun, eta darabilbun, berbetearen edertasunak bertan-bera izteko. Ezegaitik bere ez olakoxerik!

Geure bizitza guztian euskaldun-euskaldun izan garena dogu, ba, euskerea eta ez euren bizitzako joanetorri guztietan erderaz diarduen euskera mordoilluzaleena.

Gogoratu egizue, barriz, jaunok, Bizkai'ko euskera sakonaren itz ugari, esakera eder eta adizkera egokiak eta abar baztertuturik ezin izan daitekeana euskerearen batasunik: Sartu egizue au gogoan!

Neurri bardiñean maitetu ta erabilli daiguzan euskalki guztiak, euskerea benetan zaindu gura ba'dogu eta, idazlien eragiñez, berez-berez eldu dagikegu batasun ulerterreza ta guztiontzat egokia daitekena.

* * *

Euskera-gaiztoz baiño ez dakien eta euren bizikera guztian beti erderaz diarduen iru-lau euskal-sen bagakok ertzak artuta egoak mosturiko euskera-gaiztoa barik izkera zabala, ugaria, egokia ta erriarrak ulertzen dabena bear dogu, ba, idazleak, geure gogai, burutapen eta asmuak ulerterrez, egoki, ta bear dan argitasunez azaltzeko.

Gogoan artu, ba, benetako euskerea zaindu gura dozuen euskaltzaiñak baldin ba'zaituegu, beintzat, **perestroika** egin bearrean dogula euskereiaz artu izan zenuen bide arrotz eta lorriña.

AURRE-APRAIZ'tar BALENDIN'ek.

LOTSAGALDUA

Aurtengo udaran gertatua xeetasun guztiekin. Istori onen ardatza 5 urte betetako umea degu. Obeto esanda: lau illebeta falta 5 urterako. Idurre ipiñiko diogu izen, bere izena ori ez bada ere.

Idurre neskatxoa, bi urte luze, gaixorik egona degu, gerritik beera ieltzoz lotua. Ibili eta mogitu ezin. Oiñak motelak eta geldi; baiña, mingaiñan artu ditu anketan falta zaion indar guztiak...

Nai ditun guztiak egiten utzi eta laga diote. Bai, ba, zer egingo diozu gaixoari...? Ieltxotik bernak askatu diotenean, zeñek aguantau? Lenago egin ez ditunak, oraintxen danak batera. Biurri dabil.

Bere ama gaztea, gizaki urduria eta olatuaren mutur-muturrean doana, politika arazoetan bezala, euskeran ere. Eztabaidak ez dira falta etxean bi arazo auri buruzkoak guraso gazte eta zaarren artean.

Sendatu zan gure Idurre eta orain dira kontuak; errietan egiten diote okerkeri bakoitzeko eta erantzunik ematen laga ez. Baiña, berak asmakizuna asmatu du: errietan asten diran bakoitzeko, aopean asiko zaizu marmarrean:

—Aoiuaepeukepokerapa...

—Ixilik egongo al zera...!

—Apapumamoitokiopipurraaa...

—Ixilik egoteko...!

—M uumuikikokarakapupakaka...

—Baiña, ori zer da...?

Beetik gora, mamorrueen ikuspegitik, amari begiratu eta, antxintxika eta arin-aranga pasillora iges dijoala:

—Ori...? Euskera batua.

ZUEK ERDERA...!

Beste batean, telefonoa deika: Rin, rin, rin...

—Zein da?

—Ni, Idurre.

—Ola, illobatxo, ondo zagoz?

—Oso ongi.

—Gure etxera etorriko zera?

—Bai orixe. Gustora.

—Amatxo etxian dago?

—Bai, etxian dago.

—Esango diozu telefonora etorteko?

—Bai, esango diot.

Ixil-unea. Badirudi telefonotik beste aldera ez dagoela iñor. Izekok:

—Idurre! Idurre! Or zagoz?

Telefonoa ixilik; ez du iñork erantzuten.

—Idurre! Mesedez, amaxori esan etorteko!

— *Qué tal estás, izeko?*

—Baiña... Idurre!

— *Qué tal te encuentras, izeko?*

—Baiña, Idurre! Zer izketa da ori? Esan amaxori etorteko!

—Bai, zuk neri erritan egin eta gero zuek, amatxo eta zu, beti erderaz telefonotik...

~ ~ T ~ ~ ~ ~ ~



Gure erriaren aurrerapenagaitik.
Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik.
Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik.
Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

Bizkaia beti.